



2021EKO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



AUZO: ALTZIBAR

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2020-10-06	19:00	20:30

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Agustin Lekuona, Enekoitz Marcos, Iosune Cousillas eta Eneritz Arbelaitz			
Herritarrak:	Euskaraz: 13		Elebitan: 0	
	Emakumezkoak: 6		Gizonezkoak: 7	
	<30 urte: 0	31-50 urte: 1	51-65 urte: 9	>66 urte: 3

AKTA:

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
Aurkezpena	Aurkezpena egin da eta Covid-aren berezitasunak aipatu dira.
2020 urtea	Orain artekoaren balorazio bat egin da eta geratzen diren hilabeteetan zein gauza burutu nahi diren argitu da.
2021eko aurreikuspena	Aurrekontuen zirriborroa aurkeztu da. Aipatu da zehazki diru-sarreraren aurreikuspena egitea aurreko urteetan baino zailagoa dela, koronabirusaren eragin ekonomikoa zehazki aurreikustea zaila delako.
Auzoa	Altzibarko urbanizazio proiektua eta plana aurkeztu dira. Galdetu da oinezkoen bideen inguruan. Mikelete eta Martintxoko zorua ezberdina izango da, oinezkoen lehentasuna adierazteko. Beheko eremu horretan aparkatzeko ordu batzuetan arazo handia egoten da. Aipatu da oinezkoen bidean ere kotxeak aparkatzen direla. Egunez molestatzen dute, baina gauez trabarik ez dutela egiten. Isunak ere jartzen direla kexatu dira, baina malgutasuna badagoela erantzun da. Obra honen aurrekontua handia da eta 2021a nola doan ikusiko dugu, proiektua gauzatzeko ekonomikoki aukerak daudenean martxan jarri nahi baita.

Autokarabanen inguruan ere hitz egin da, urtero ateratzen da gaia. Izan ere, batzuk urte guztian plaza okupatzen dute, autokarabana kentzen dutenean beraien kotxea uzten baitute. Beste aparkaleku batzuetan galiboa jarri da eta ongi doanez, Klarenen ere jartzekoa dela aipatu da.

Aparkalekuei dagokionez mugikortasun planean ere egoera zehatza zein den ezagutuko dela azaldu da.

Agerrealde ondoko etheen inguruan ere hitz egin da. Planoa erakutsi da. Oraindik zehaztasun asko falta dira, baina izango duen aparkalekuaz hitz egin da. Aparkeleku publikoa izango da eta denbora mugatua izango ote duen galdetu da. Oraingoz ez da aurreikusi horrelako neurririk. Hala ere, bizilagun batzuk aipatu dute aparkaleku hori eginda ere aparkatzeko arazoa egongo dela. Etxe horien altueraren inguruan ere galdetu da. Auzoan zabaldu omen da abenduan hasiko direla obrak, baina udaletxean datorren uda arte hasia ez da aurreikusten, gauzak ongi badoaz. Hala ere, Agerrealdeko zorua eremu batzuetan gaizki dago eta asfaltatze lan batzuk egingo dira aste honetan. Gero, ondoko obra bukatzean guztia txukun utziko da. Obratxo hau egiten den bitartean aparkatzeko beste lekuri egongo den galdetu da, eta ezetz esan da. 3-4 egunetako kontua izango delako. Etxe berri hauen altueraz ere galdetu da. Metro zehatzak ez, baina lau pisutako etxeak izango direla aipatzen da.

Egiten diren etxe berriek duten estetikaren inguruan kexa egon da. Iturriotzen, Olalden... egin diren etxeak Oiartzunen ez direla ongi geratzen. Ea ezin ote den ezer egin. Aipatu da plan orokorrean eremu batzuk babes gehiagorekin daudela, baina beste batzuk ez.

Altzibarren kamioi handiak sartzen dira eta Martintxo-Done Petrin ezin buelta emanaz geratzen dira. Seinalea jarrita dago baina hala ere sartu egiten dira. Lehen agian gehiago sartzen ziren, baina arazoak jarraitzen duela aipatu da eta zerbait egin beharko litzatekeela. Aranburu bidea eta Arañaburu nahasten omen dituzte eta GPSak Altzibarrera bidaltzen ditu kamioiak Lanbarrenera bidali beharrean. Lanbarrengo seinalizazioa hobetu beharko litzateke. Aipatu da, baita ere, Arañaburu kaleari izena aldatzeko aukerarik egongo ote litzatekeen.

	Adurizetik Pitusara eremua nola geratuko litzatekeen galdetzen da. Aurkezpeneko planoaren bidez azaldu da, baina akta bidaltzearakoan plan orokorreko plano bidaliko da, argiago ikusteko. Cadarsoko egoera nola dagoen galdetu da eta oraindik lurzorua ebaluazioaren baitan zer egin daitekeen ez dakigula erantzun da. Saltokitik hasi eta Arraguaraino sortzen diren auto pilaketen inguruan hitz egin da eta autopista doakoa izan behar duela ere eskatu izan dela lehen ere. Horren inguruko erantzunik ez dago. Aipatu da Udalaren eskumenekoak ez diren gauzak ere eskatu daitezkeela beste administrazio eta erakundeetan. Udalak eskaerak bideratu ditzake, baina batzuetan herritarrek zuzenean egiteak izaten du eragina.
--	--

BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	9,00
bilera ongi gidatu da	8,80
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	8,60
Auzotar kopurua	4,10
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	7,10
Saioa probetxugarria izan al da?	8,67
Egunaren egokitasuna	8,60
Orduaren egokitasuna	8,60
Lekuaren egokitasuna	8,30